

**Antzezlanak:** UKONDOA.

**Sinopsia:**

Gazte batek Lezoko harategi batera jotzen du, harakinari ukondoan ebaki bat egiteko eskatuz. Umore absurdoaren testuinguruan kokatu badaiteke ere, *Ukondoa* antzezlanak gure garaiaren isla izan daitekeen gai bat dakar: jendaratean epaitu, silkatu eta definitu ohi dugu pertsona bat bere gorputz atal bakar baten arabera?

**Pertsonaiak:**

A: Ukondoan ebakia nahi duen gaztea. Mundu guztiak bere gorputz atal hori larderiak desio duela sinetsita, ebaki, zauritu, itsustu egin nahi du ebaki baten bidez.

B: Harakina, ezusteko eskaera jaso eta atakatik ateratzen saiatuko dena.

## UKONDOA

A: Ebaki bat, mesedez.

B: Non?

A: Hemen.

*(Isilunea.)*

B: Hau ez da kafetegi bat.

A: Bai. Badakit. Nik ebaki bat nahi dut soilik.

B: Baina zuk... Badakizu nola funtzionatzen duen laban batek?

A: Labana?

B: Labana.

A: Nik La Habana ezagutzen dut soilik.

*(Isilunea.)*

A: Kuba.

*(Isilunea.)*

A: Ebaki bat egingo didazu, bai ala ez?

B: Zu ez zara bertakoa.

A: Eta?

B: Zer da benetan nahi duzuna?

A: Ebaki bat. Ebaki bat, besterik ez.

B: Zergatik hemen? Zergatik orain?

A: Guillermo de Lazon, dago Lezon.

B: Guillermo de Lazon, dago Lezon?

A: Guillermo de Lazon, dago Lezon.

B: Nola dakizu klabe sekretua?

A: Berdin dio horrek. Diru truke mesedetxoak egiten dituzula entzun dut.

B: Bai. Kontrabandako haragia. Matxinsalto xerrak batez ere.

A: Bilatzen ari naizena zara, orduan.

B: A, bai?

A: Bai.

*(Isilune luzeagoa.)*

A: Jendeak desioz begiratzen dit hemen. Ezin dut ekidin.

B: Non?

A: Hemen.

B: Ukondoan?

A: Bai.

B: Eta?

A: Ebaki bat nahi dut.

B: Hor?

A: Bai.

B: Baina nik haragia mozten dut. Xerratan.

A: Horixe ba.

B: Xerrak nahi dituzu?

A: Ez. Ebaki bat. Ebaki bat nahi dut. Jendeak begiratuko lidake haragia, haragia dela oroituko balu?

B: Ez dakit. Nik animaliak zatitzen ditut.

A: Eta zer naiz ni, bada? Ebaki bat nahi dut.

B: Baina nik ez ditut besoak mozten.

A: Nola ezetz? Izterra, hegala, lepoa... denetik mozten duzu zuk.

B: Baina ez pertsonena. Pertsonena... ez.

A: Ordaintzeko prest nago.

B: Ez da hori kontua.

A: Jendeak desioz begiratzen dit ukondoa, larderiaz. Begiak ateratzen zaizkie zuloetatik. Listua erortzen zaie ahoaren ertzetik. Nire haragia freskoa da hemen, ikusten? Hori izango da. Besoa eta besaurrearen arteko zirrikitan batez ere, mamia dut, ukondoak ederki borobildua. Bi zatiak elkartzen diren lekua erakargarri egite zaio jendeari. Ez dakit zer duen zirrikitu horrek. Sumatzen dut nola turistek argazkiak ateratzen dizkidaten ezkutuka. Behin sare sozialetan topatu nuen ezezagun batek jarritako nire ukondoaren argazkia. Nola deitzen zaio honi? Ukondoaren beste aldeari?

B: Ez dakit.

A: Ba jakin beharko zenuke. Aditua zara ...

B: Baina ...

A: Uler dezaket titien arteko hutsunera begiratzea. Edo ipur-masailen arteko tarte horretara. Baina hemen? Zergatik hemen? Zer du honek? Zergatik desio du jendeak nire ukondoa? Sexualki, esan nahi dut.

B: Ba ez dakit... Probatu duzu psikologoarekin?

A: Bai. Baina bulegoan ez zuen labanarik. Eta berak ere ukondoa begiratzen zidan. Saiatu zen ekiditen, disimuluz jokatzeko, baina sumatu egin nuen. Begiradak ihes egin zion nire besora. Eta nik ezin dut besteen begirada gosetia jasan.

B: Nola dakizu?

A: Jakin... zer?

B: Nire izena. Hassan.

A: Begira, Hassan. Ezin dut jasan. Nik ez dut ezer egin besteen begirada pairatzeko. Nik kaletik lasai ibili, besterik ez dut nahi. Egunero kalera atera behar izaten naiz protektoreak jarrita. Edo alkandora mauka luzeak, sekulako beroa egin arren. Ezin izan naiz aldaketa klimatikora egokitu, jendeak ukondoa larderiak begiratzen didalako. Ez da justua. Zerk eramaten gaitu besteen haragia desiratzera, haragi horrek emozioak dituela ahaztuta?

B: Goseak?

A: Goseak? Zeren goseak? Hara, ni, ni izango banintz, ebaki bat egingo nuke hemen.

B: Baina zu, zu zara.

A: Hain zuzen ere. Nork ez ditu kontraesanak? Zuk egitea nahi dut. Ebakia. Ordaintzeko prest nago.

B: Baina zer lortuko duzu horrekin? Hau da, zer espero duzu lortzea besoa zaurituta?

A: Itsusia izatea. Jendartearentzat, esan nahi dut. Ukondo ederren kanonarentzat. Ukondo pornografiaren industriarentzat. Nire ukondoa munduko gorputz atalik desiragarriena izanda ere, jendeak oroitzea beso honen azpian sentimenduak daudela, egun onak, egun txarrak, egun erdipurdikoak.

B: Eta... ezin duzu esan?

A: Esan zer?

B: Hori bera.

A: Sentimenduak ditudala?

B: Bai.

A: Nik esan dezaket. Baina nire ukondoak? Berak ezin du hitz egin. Saiatu naiz, ez pentsa. Marraztu dizkiot ezpainak, baina ez du ezer esaten. Gorputz atalek ez dute ahotsik. Eta nork ez du inoiz inor epaitu, sailkatu, definitu gorputz atal baten arabera. Badirudi munduko, edo inguru hauetako, edo

auzoko besorik xarmagarriena, lirainena, desiragarriena, nik dudala. Baina nork ematen die ahotsa gorputz atalei?

B: Hara. Nahi baduzu nire istorioa kontatuko dizut.

A: Hara, benetan?

B: Ez dakit. Horrelakoetan hori egiten da, ezta? Agian zeozer esango dizut eta argia ikusiko duzu, agian nire bizitzako pasarte esanguratsu bat kontatuta zer pentsatua emango dizu, alegoria bat, metafora bat, eta zure bizitzaren norabidea aldatuko duzu, eta beti egongo zara zorretan une itxuraz xume honekin, eta hortik aurrera harro erakutsiko duzu zure ukondoa, ahaldundurik, eta ezkutatzeko arrazoi bat izatetik zure izate sakonaren funtsa, oinarria izatera pasako da. Ukondoentzako autolaguntza liburu bat idatziko duzu, ehunka hizkuntzetara itzuliko dena, eta best seller bat bilakatuko da, eta aberastu egingo zara, eta filmak egingo dituzte ukondo ederrei buruz, edo Netflixeko miniserieak, edo Eusko Jaurlaritzaren zirkuitu kontzertatuan sartuko diren antzezlanak...

A: Hara, benetan? Hori egingo zenuke niregatik?

B: Bai, noski.

A: Eta...?

B: Ba... ez zait ezer okurritzen.

A: Saia zaitez.

B: Ea ba. Inprobisatuko dut. Begira, ni harakina naiz, baina betidanik izan nahi dut zinegilea.

A: Hara, benetan?

B: Ez. Baina interesgarria dirudi, ezta?

A: Segi, segi.

B: Zinema izugarri gustukoa dut. Beno, egia esan, istorioak ditut gustuko. Beno, egia esan, istorioen hasierak maite ditut.

A: Hasierak?

B: Hasierak. Hasierak soilik. Gustukoa dut nola aurkezten diren istorioak, nola ehuntzen diren paisaiak, pertsonaia batzuen bizitzak kokatzeko. Nola hasten diren azaleratzen haien bizitzak ekintzen bitartez. Maite dut une hori zeinean ate bat zabaltzen den, non espektatiba bat sortzen den, non kuriositatea pizten den. Liburuen hasierak irakurtzen ditut, eta korapiloak hasten direnean irakurtzeari uzten diot. Lagunek beren oporrak kontatzen dizkidatenean kontakizunaren erdian komunera joaten naiz. Ez zait interesatzen istorioen bilakaera, haien hasiera baizik. Filmekin berdin. Filma guztien lehen ordu erdia ikusten dut, eta gero zinematik ateratzen zait, aspertzen hasten naizelako, istorio bat garatzen hasi orduko. Interesgarriena ez delako zer gertatuko den, gertatu daitekeena baizik. Posibilitateak interesatzen zaizkit. Aukerak. Jakitea beste mundu posible batzuk daudela, horrekin konformatzen naiz. Ez dut gehiagorik jakin nahi.

A: Orduan...

B: Bai.

A: Istorio guztiak zatikatuak entzuten dituzu.

B: Nire ofizioa zatiak egitea da. Harakina naiz.

A: Oso esanguratsua da. Uste dut harreman zuzena duela nire arazoarekin. Baina ez dakit zergatik.

B: Ezta nik ere.

A: Orduan...

B: Orduan, zer?

A: Ebakia egingo didazu?

*(Isilunea.)*

B: Ez.

A: Zergatik ez?

B: Ni harakina naizelako.

A: Baina zuk... zuk haragia zatikatzen duzu.

B: Bai, hala da.

A: Baina ni haragia naiz.

B: Ez. Haragia bazina, ez zenuke ebakirik eskatuko.

A: Aizu, azkenean moraleja bat atera zaizu.

B: A, bai? Ba ez zen nire asmoa.

A: A, ez? Eta zer lortu nahi zenuen ba?

B: Hurrengo bezeroari behingoz txanda eman. Zer nahi duzu?

C: Ukondoa, mesedez.

## EPILOGOA

Ukondoen kontzientzia.

Mundu osoa mugitzen da hankartera begira,

ipurdira begira,

titiei begira,

abdominalei begira.

Baina ukondoa.

Nori axola dio ukondoak.

Ukondoen erotika.

Minbizia daukat ukondoan.

Ukondoen transplantea.

Ukondoa geratu zaio, zast, bat-batean.

Taupaka aritzeari utzi dio ukondoak.

Munduko ezker distopikoaren sinboloa, altxa ezkerreko ukondoa.

Ukondoetan pentsatzea ez zait lagungarri egiten.

Nekea bisualizatzen dudalako.

Ilean pentsatu agian.

Eskumuturretik besazpira doazen ileei begira jarri naiz.

Ileak. Ileak. Ileak.

Ezinezkoa da pertsona bakar baten ile guztiak kontatzea.

Pertsona ororen gorputza da mundua bezalakoa.

Ezinezkoa da munduan orain eta hemen dagoen jende guztia zehatz-mehatz zenbatzea.

Numero zehatza milisegunduro aldatzen da.

Orain pentsatzen ari naizen esaldi hau amaitu baino lehen milaka izango dira jaio eta hil diren pertsonak.

Orain beste esaldi bat hasi naiz eraikitzen eta idazten bukatzerako, komak zabaldu eta tartean hitz batzuk jartzerako, esaldia jarraitu eta amaitzerako, beste milaka batzuk dira jaio eta hil direnak.

Eta bakoitzagatik poz-negarrak, tristezia-negarrak, edo ezer ez.

Baina ukondoa.

Nori axola dio ukondoak.